

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2009ko urriaren 16a / 266. zenbakia

- HERRIKO KONTUAK **Euskararen erabilera** 05
- KIROLA **Goikokaleko krono igoera** 08
- KIROL ELKARRIZKETA **Iosu Esnaola** 09

- AIAKO BERRI **Udaletxea berriz irekita** 11
- IRITZIA **Eli Huegun** 18
- HERRITARRA **Jose Casallo** 25



Orio-Australia, ametssetako bidaia

Gazte asko joaten da Australiara; beharrak utzi, motxila hartu eta abenturara. Zergatia jakiteko, nor Orioko surfariak baino hobeto?



FISIOTERAPIA Garikolatz Arriategi eta Naballa Wineszen
NUTRIZIONISTA Garbete Azpuru

sinergia

investigacion
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

agirresarobe+elizondoarkitektura

Obra eta proiektuak

obra berrien proiektuak • informak •
erreformak eta eraberritzeak • obra
direkzio • proiektu koordinakuntza

borja agirresarobe lopotegi tel.: 635 731 722



Tf: 943 13 04 38



ACTIVA



Akobe

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO

HAIZE BERRI

tailerrak-jantokak-kafetegiak

Plater konbinatuak,
biskotak,
harberrak,
razienak,
eguneko menuak...

eta etxera eramateko zerbitzua!

6 urteko esperientzia. Enpresa 1. 943 83 12 13. Abeslari gunea 16a.

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo

Asagunak-argenteak



Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

ERROTA



- Eztei ospakizunak
- Banketeak
- Karta zabala
- Eguneko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65



tarima, eta, teilu, eskalera...
behar dituen arak lanak
egingo ditugu

Udazketa bidex. 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

PERTSIANAK



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERTZU OROALA

Idazkari berrak
943 13 04 726
89 601

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAR



943 83 05 37 / 943 83 27 47

SOLOZABAL

autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. esk
telefon: 943 83 08 12



Zaragueta

Eskola

Orio

telefonak: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



MEDIKUNTZA NATURALA,

BANAKAKO KONSTELAZIOA,

KONSTELAZIO FAMILIARRA

ETA TAROT TERAPUTIKOA

Dehar, Gernu, Euzkarrak...
Konstelazioak surten surten adina telefonak

685 73 93 56 -Izarrak-

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5



ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abendaño Industrialdea
943 83 08 45 / 810 60 23 35
ZARAUTZ

eusko gudari 5
647 02 84 85-943 83 41 17



Muxutrak

lore bidea

Osasun eta
Zerbitzua

osakuntzak
jantokak, barneko lanak...

India etxezuznak
Dietak, barne...

lore bidea etxezuznak

Gabon

TABERNA

plater konbinatuak

zapuntxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@karkara.com

Editorea

Karkara taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Mikel Aranzabal

Erredakzio taldea

Pat Cowie, Miren Etxeberria,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa eta
Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Mikel Aranzabal

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Jon Ander Azpiroz eta Eli Huegun

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzzaileak

Ekiñe Miralles eta
Goiuri Unanue (Orio)
Ainize Sayago (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berreman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.



Eusko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Festara nora jo erabakitzeko

IÑAKI GURRUTXAGA ETA JONE URIAK TXAPELKETA NAGUSIKO ZESTOAKO SAIOKO BERTSOALDIA

Uria

Berrito Zestoara
joatea hautatu,
nik ezetz esango dut
ta gainera altu.
Neska lortu zenuen,
bai baina barkatu,
nik ere nahiko nuke
ahal bada ligatu.

Gurrutxaga

Gonbitea luzatu
ta a ze protesta,
ez zaio gustatu ta
Zestoako festa.
Zuk topatu mutila,
nik badaukat neska
ta nik topatu banuen
horren zaila ez da.

Uria

Behar izan zenituen
zuk nire laguntzak,
hori ahaztu ote du
ba buruko kutxak?
Niri ez zaizkit gustatzen
mutiko giputzak,
hitz egin asko baina
gero soso hutsak.

Gurrutxaga

Beraz zuk ligatzeko
ze afizioa!
Gipuzkoarrek kendu
dute desioa.
Nik'e bizkaitarrekin
a ze sesioa,
ez dute estimatzen
konbertsazioa.

Uria

Oso aspergarria
delako hizketa,
banoa Bizkaia
Ondarrura buelta.
Mutil guapoak daude
Ondarrun tarteka,
hoiei ez zaie ulertu
behar izaten ta.

Gurrutxaga

Zu zeure azentuan
moldatzen zeranez,
hemen naiz, ez kritika
eta ez esames.
Zestoan egongo naiz
trago bat edanez.
Uztapideren eta
Joneren omenez



KARKARA

PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Anonimotasunean lasai egoten gara

Erraza izaten da anonimotasunetik kritikatzeko eta irainka aritzea, eta hortan badu esperientzia batek baino gehiagok KARKARAREN webgunean.

Askok dagoenerako antzemango zion nondik nora nabilen, baina webgunearen erabiltzaile ez denak, ziur ez dakiela ezer. Herri honetan bada arraunzale sutsu bate, zein nire bizitza pertsonaleko kontuak astintzen eta nire pausuak jarraitzen dituen. Arraunaberbiarenarekin sinatzen du, eta lehen irainetik urtebete igaro bada ere, oraindik ez da aurpegia emateko gai izan.

Gainera, halako eztabaidagunea horretarako baliatzea lotsagarria iruditzen zait –eta alde horretatik nik ere gaizki jokatu izan dut bere jokoa erorita–, baina pertsona baten irudia kaltetu nahi izatea aurpegirik eman gabe, ez da bidezkoa.

Honekin, behingoz aurpegia ematera animatu nahi zaitut. Dagoeneko jende askok egin baitit galde zutaz eta zein izan zaitezkeen jakin nahian gabiltza batzuk. Anonimotasunean lasai zaude, baina anonimotasun hori alboratuz gero ez dakit berdin kritikatzeko gai

GUTUNERAKO OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidali daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidali daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenez argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

izango zinatekeen. Ea behin-goagatik adorea erakusten diguzun!

IKER GURRUTXAGA

Kilometroak 2010, agian...

Urriaren 4a, igandea da eta egun polita igaro dugu. Kilometroak direla eta, Gipuzkoako Ikastolaren festarekin bat eginez, Donostiara joan gara. Egun ederra, giro aparta, jende andana eta ibilbidean antolatutako zeuden ikuskizunekin gozatzeko prest.

Adin guztietako jendea, umeak, gazteak, helduak eta edadetuak ere ibilbidean, dena oso on... dia, eta zer dira ibilbidean ikusten diren arbel

beltz horiek? eta berari itsatsita dauden argazkiak?

Begira geratzen gara eta hainbat aurpegi ezagun ikusten ditugu.

Ibilbide osoan ikusiko dugunez, ehunka, milaka argazki, arbeletan, hormetan, zabor kontenedoreetan eta hainbat lekutan itsatsiak.

Norbaitek bapo egin du lana, pentsatzen dut; eta bat-batean ere neure buruari galdetara bat egin diot: zer ote da argazki horiekin adierazi nahi dugutena?

Agian, fisikoki egon ezin dutenez, haiek ere parte hartzen dutela, bat egiten dutela festa honekin? agian...

Agian, festan parte hartu dezakegunok ez garela inondikinora haiekin ahazten, gure artean nahi eta behar ditu-

gulako? agian...

Agian, milaka herritarrek haiei mugarik gabeko elkartasuna adierazi nahi diegulako? agian...

Agian, *maite zaituztegu* ezin dugulako ozen eta garbi adierazi? agian...

Agian, agian, agian...

Ibilbidea milaka argazkiren artean egin ondoren, zera pentsatu nuen: *Ikusirik udako gurutzadak eman dituen emaitzak (Remi Aiestaran, Villabonako alkateordea hilik suertatu zen) errepresioaren gainetik, presoekiko elkartasuna handiagoa da, baita horien inguruko propaganda ere, eguneroko oia izan dugu, eta beraz...*

Agian, Lopezen eta Aresen gobernu espainiar eta espainolistak Herri hau ez du ondo ezagutzen, agian...

Agian, Ares Barne sailburua PSOEn barnean sator lanak egiten ari da, presoekiko maitasuna eta elkartasuna jarrera errepresiboaren bitartez areagotuz eta haien mesedetarako, agian...

Agian, irakurleak sumatu lezake zer den egia eta zer txantxa, agian...

Agian 2010eko Kilometroetan gurekin izango ditugu, eta gu haiekin Pasaiako ibilbidea eginez, baina beren argazkirik gabe, kalean, gure artean egongo direlako, agian...

JOSEBA GOIBURU

ECIN ZAITEZ KARKARAKIDE

KARKARA

20 urte

KARKARAKide izan nahi dut: KARKARA aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago KARKARARI urteko 30 euroko laguntza emateko.

Izen deliturak:

Helbidea:

Herria: Posta kodea: Tel:

Kontu korronteko zenbakia:



HELDUAK DIRA EUSKARAZ GUTXIEN HITZ EGITEN DUTENAK

Euskararen erabilera nabarmen jaitsi da Orion

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak bi urtetik behin neurtzen du zenbat erabiltzen den euskara kalean eta aurtengoak ondorio garbi bat utzi du: euskararen erabilera jaitsi egin da, batez ere helduen artean.

Euskara Zerbitzuak hogeitaz hamar urte daramatza euskararen erabilera neurtzen herriko kaleetan. Hasieran, urtero egiten zen, baina azken hamar urteotan, berriz, bi urtez behin. Maiatzean egiten da beti, garai eta ordu berdinetan, datuak elkarren artean konparagarriak izateko.

Neurketa egiterakoan, kalean dabilen jende guztia-
ren jarduna jasotzen da: zein ari den euskaraz, zein gaztelaniaz edo beste hizkuntzaren batean, emakumezkoak ala gizonezkoak diren, zein adintaldetan sailkatzen diren...

AURTENGO NEURKETA

Aurtengoa maiatzaren 27tik 31ra egin zen eta herriko bi gazte ibili ziren lan horretan. Guztira, 4.306 herritarren hizkuntz jarduna neurtu zuten asteazkenetik igandera bitartean, bizitzako hainbat eta hainbat jardueratan: erosketak egiten, paseatzen, txikiteoan...

Lagina edo muestra hain zabala izanik, emaitzak fidagarritasun handikoak dira, erre-tarte txiki batekin.

EMAITZAK

Emaizta nagusiak hauek izan dira: Orioko kaleetan dabil-tzan haurren % 83,5ek egiten du euskaraz; gazteen artean, berriz, % 84,6koa da erabilera; helduek % 53,5 egiten dute euskaraz eta zaharrek, azkenik, % 71,6.

Guztira, adin-talde denak



Herriko gazteek eusten diote ondoen euskararen erabilerari. Helduek askoz gutxiago egiten dute.

KARKARA

kontuan hartuta, euskararen erabilera % 63,9koa da Orion.

BALORAZIOA

Azken hamar urteotako emai-

tzekin alderatuta, nabarmena da erabilerak behera egin duela, bost eta hamar puntu artean. Gazteek eutsi diote azken urteotako mailari; baina gai-

nontzeko taldeetan jaitsierak izan dira eta denetan nabarmenena helduen artean gertatu da: % 60tik gora finkatuta zegoen aurreko urteetan eta % 53,5ekoa da orain, inoizko baxuena. Kontuan hartzekoa da, bestalde, haurren artean ere jaitsi egin dela erabilera, aspaldiko partez. Horren arrazoiaz galdetu diogu Euskara Zerbitzuko Jabier Zabaleteri: *Haurrek euskaraz egiten dute nagusiki beren artean; baina guraso erdal-dunekin erdaraz ari dira eta, gaur egun horietako gehiago daudenez Orion, hori islatzen dute datuek. Gazteak, berriz, gehiago ibiltzen dira beren artean, eta hor ez da aldaketarik izan. Datuek garbi erakusten dute euskararen erabilera bultzatu nahi dugunak ez garela asmatzen ari.*

Euskaraz gutxi eta *poco*

Belarria jarri eta erraz antzemateko gauza da: utzikeria zabaltzen ari da gure artean; tokia hartzen, gero eta handiagoa. Gero eta euskara gutxiago entzuten da gure kaleetan. Hori bai, arituko gara euskaldunak garelako esaten, ozen eta builaka, pegatina paparrean jarrita, badaezpada. Kartela ere jarrita dugu herriaren sarreran, dotore asko: Orion euskaraz bizi gara. Ez alferrik.

Baina, Orion, euskaraz gutxi eta *poco*, benetakoa ahaztutzen zaigulako, hau da, euskaldunak bagara, euskaraz hitz egiten dugulako dela... Zer nahi duzue esatea... gainontzekoa folklore hutsa, itxurakeria besterik ez zait iruditzen.

ANA GONZALEZ DE TXABARRI | KARKAREN ZUZENDARIA

KALEAK GARBI MANTENTZEKO LAGUNTZAILEAK IZANGO DIRA GOROTZA JASOTZEN

Zaldien eta zaldi-gurdien topagune izango da Orio

Zaldien heziketak, trebakuntzak, oinarritzko zaintzak, perratze lanek eta jokoek osatuko dute erakustaldia eta hainbat zaldi-arraza ikusteko aukera ere izango da.


Urriaren 17an, larunbata, bilkura berezia egingo da, aurreneko aldiz, zaldien eta zaldi-gurdien bilgune izango baita Orio.

Goizetik hasi eta iluntzera arte, herrian barrena zaldiak eta zaldiekin egindako erakustaldiak nonahi ikusteko aukera izango da. Umeentzat eta zaldiak gustuko dituzten herritarrentzat egun polita izan daiteke larunbatekoa.

EGITARAUA

Goizean, 09:00ak eta 10:00ak bitartean, hondartzan elkartzen joango dira zaldiak eta gurdiak gero, denak batera, paseoa egiteko herrian barrena, 10:30ean.

13:00etan, animaliak nola perratzen diren ikusi ahal izango da eta arrazako zaldien erakustaldia ere egingo da plazan. Zaldien heziketa, trebakuntza eta oinarritzko zaintza nola egiten diren ezagutzeko paregabeko aukera izango da. Gainera, arrazako zaldien artean munduko preziatuenak edo famatuena izango dira: arabiarak, ingelesak, pointak, milia laurdenekoak, frisoak edota espainiarak, besteak beste. 14:30ean, bazkaria egingo



Pello Saizarrek ere parte hartuko du erakustaldian.

KARKARA

**13:00etan,
perratze lanek
eta arrazako
zaldien
erakustaldia
egingo da
plazan**

dute eta, ondoren, 17:30ean, aditu batek azken berrikuntzen gaineko ordubete ingu-

ruko hitzaldia emango du eta jokoak egingo dituzte hondartzan. Erakustaldiak 20:00ak arte iraungo du eta, arduradunekesan digutenez, kaleak garbi mantentzeko laguntzaileak izango dira gorotza jasotzen.

PARTE HARTZEKO

Hiru telefono zenbaki jarri dituzte parte hartu nahi dutenentzat: 652 77 83 74; 637 53 28 78; eta 670 52 09 51. Interea dutenek zenbaki horietara deitu besterik ez dute.

LABUR

LANAK

12 enpresa

Hamabi enpresa aurkeztu dira arraunketa teknifikazio zentroko proiektua egiteko eta urria bukaerarako jakingo da nori emanango zaion lana.

Zentroa Orion eraikitzeko Udala kudeaketa lanak egiten ari da eta alkatetik dioenez, *Instituzioetatik erantzun ona izaten ari gara. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Aldundiak laguntza ona eman digute eta Piraguismo eta Arraun Euskal Federazioa ere oso inplikaturik azaldu da proiektuarekin.* Madrilgo Kiroletako Goi Batzordeari laguntza eskatzea falta omen da.

BERTSOLARITZA

Eskola berriz

Errikotxiak ikasturte honetarako bertso eskola prestatu du. Ostegunetan emango dira, 20:00etan, Errikotxiako lokalean, frontoiko aldapan, eta ordu eta erdiko saioak izango dira. Unai Manterola izango da irakaslea eta idatzizko nahiz bat-bateko ariketak irakatsiko ditu, mailaren arabera. Ikasturte osoaren prezioa 30 eurokoa da eta lehen saioa urriaren 23an izango da. Izena emateko hara azaltzea nahikoa da.

Bestalde LH5-6 eta DBHko ikasleentzako eskolarako izen-ematea ikastolan edo Zaraguetan egin behar da urriaren 28a baino lehen.

ALTXERRI Karia enberritua
Asteburuan, eguerdi eta gauean,
menu bereziak
943830762

Kinkladenda- Uma arropa
argine
www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89
25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
jatebxea
Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

BERTAN LEKUA DUTEN KULTUR TALDEAK ITZULTZEKO MODUAN IZANGO DIRA URTARRILEAN

Kosta Tailerreko teilatua konpondu dute dagoeneko

Kosta Tailerrean ziren taldeei lokalak hustutzeko esan eta gutxira, uda bukatzeaz zela, hasi ziren lanak. Hasi besterik ez dira egin oraindik: teilaberritu egin dute eta orain barrukoarekin hasiko dira.

Done Jakue Bideko Interpretazio zentroa egin duen enpresak berak irabazi zuen Kosta Tailerra berritzeko lehiaketa: Freissinet enpresak.

314.500 euroko inbertsioa egingo du Udalak eta musikariekin, behintzat, elkarlanean egin omen dute proiektua. *Lan horien helburu nagusia eraikina erabat isolatzea da, eta baita elektrizitate instalazioa eta suteen kontrako neurriak eguneratzea ere, Aitzpea Lazkanoren esanetan.*

Bere aldetik, Jon Redondo alkateak honakoa adierazi du prentsa ohar baten bidez: *Herriko taldeek duten kalitatearen adinako instalazioa prestatu nahian gabiltza, duinak izango direnak. Ea urtarilerako lortzen dugun guztia prest izatea, ondo baitakigu lan horiek taldeengan duten eragina.*

ALDAKETAK

Musikarien ekimena kontuan hartuta, aldaketak egin ziren planoan. Hasiera batean, goiko pisuan egin behar zituzten musikarientzako gelak, baina igogailurik izango ez denez,



Gelak hotsgabetuta, taldeek beranduagora arte entseatzeko aukera izatea espero dute.

KARKARA

beheko lokalean dauden kultur eragileekin adostu eta lekuz aldatzea erabaki zuten. Horretaz gain, musika lokaleko antolaketa musikarien proposamenak kontuan hartuta egin dira, eta hasiera batean horrela pentsatuta ez bazegoen ere, lokala guztiz hotsgabetuko dute.

TREN GELTOKIA ERE, AURRERA
Trenbidearen inguruko eta geltoki berriaren eraikitze lanak ere aurrera doaz pixkanaka-pixkanaka.

Trenbide-pasaguneak en-

duko duen zubia itxura hartzen hasia da dagoeneko. 580 metro luze izango du eta punturik baxuenean 4 metro eta altuenean 9 izango ditu.

Horretaz gain, tunel berria ere egiten ari dira, 170 metro luzekoa. Tunela egiteko lanen epeak pixka bat atzeratu dira, euri asko egin izanak lanak asko zaildu ditu-eta.

Hala ere, 2010. urte bukatu arte guztia amaituta egotea aurreikusten dute. Guztira, 21 milioi euroko aurrekontua dauka eta bukatu eta bidea zabaltzean, trenak 20

**Musikarien
proposamenak
kontuan izan
dituzte
eraikinen planoak
egiteko
garaian**

minutuz behin pasa ahal izango dira Zarautz eta Donostia artean. Azkenik, geltokiaren azpian, 50 autorentzako aparkalekua izango da.

AHOLKULARITZA
Fiscal, laboral, kontablea

Eugenio Garmendia

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17



RAMIRO

erreportaje
digitalak

943 83 10 48

jaletxea

logelak

gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06



Argazkirako, Garikoitzek Joxebari utzi zion txapela.

KARKARA

JULEN SAN SEBASTIAN IZAN ZEN UMEETAN LEHENA KRONOIGOERAN

Erkizia garaile bustitako aldapan gora

Bost txirrindulari lehiatuta, errazagoa zen podiumean sartzea kanpoan geratzea baino. Gazteetan, 3 bakarrik zirenez, saria ziurtatuta zuten hasi aurretik txirrindulariek.

Urriaren 10ean, larunbatarekin, Goikokaleko festetako kronoigoera jokatu zen bizikletarekin. Aurreko urteetan, kanpoko jendea ere etorri izan da, baina, aurreko, bertako asko ere ez da animatu: bostek besterik ez zuten parte hartu. Egun goibela izan zen; ateri zegoen, baina errepidea bustita.

Joxeba Altuna izan zen irteetan lehena, baina minutu bat geroago hasi zen Garikoitz Erkizia lehenago heldu zen San Martingo helmugara. Joakin Ilarramendi ateraz gero, Beñat Karrera laugarren eta Patxi Uranga azkena.

Helmugako emaitzek,

ordea, ez dute irteerako ordinarekin zerikusirik. Erkizia goikokaletarrak irabazi zuen aurtengo edizioa –iaz hirugarrena izan zen–, 2 minutu eta 28 segundoko denborarekin, eta bigarren izan zen Patxi Urangari 9 segundo atera zizkion. Joakin Ilarramendik osatu zuen podiuma eta Beñat Karrerak eta Joxeba Altunak botila ardo banarekin konformatu behar izan zuten.

UMEAK

Goikokaleko festa batzordekoak bertan behera uzteko ziren kronoigoerako umeen proba; izan ere, inork ez zuen nahi apuntatu. Azken unean, hiru mutilek eman zuten ize-na eta horrela jokatu zen proba.

Eneko Elizondo izan zen bizikleta gainean jarri zen lehena eta 51 segundotan menderatu zuen aldapa. Julen San Sebastian abiatu zen gero

iaz hirugarren izan zen Erkizia goikokaletarra, baina guztien aurretik jartzea lortu du aurrean

eta horrek ia 10 segundotan hobetu zuen Enekoren denbora. Jon Manterola izan zen parte hartzen azkena eta pixka bat itxaron behar izan zuen, gainera, bizikletarik ez zuenez Eneko erabilitakoarekin aritu behar izan baitzuen.

Azkenean, Julen San Sebastian izan zen lehenengo, kronoa 42 segundotan geratuta; Eneko Elizondo bigarren, 9 segundora; eta Jon Manterola hirugarren 53 segundoko denborarekin.

LABUR

SASKIBALOA

Unai Eizagirre Superkopian

Urriaren 2an Euskadiko Kutxa-Baskoniak ACB ligako Superkopa jokatu zuen Kanaria Handian Real Madrilen aurka.

Bertan, lehenengo aldiz Unai Eizagirre izan zen partida ofizial bateko jokalaria. Nahiz eta minuturik jokatu ez, handia da lortutakoa, Baskoniako entrenatzaileak horrelako aukera gutxi ematen ditutela.

FUTBOLA

Bostetik bost berdinduta

Puntuatzea garrantzitsua izaten da, baina puntuak banan-banan lortuz, ezin izaten da sailkapenean gora egin.

Denboraldiaren hasieran, bostetik bost partida berdindu ditu Orioko regionaletako taldeak, azkenekoa Soraluzeren kontra, eta sailkapenean erditik behera daude. Hala ere, lehen postuetara igotzeko nahikoa dute bi partida jarraian irabaztea.

DARDOAK

Unanue, 3. European

Urriaren 11n, Sevenum (Herbehereak) herrian, Europako dardo elektronikoen txapelketan hirugarren izatea lortu zuen Joseba Unanuek. Ibarrako Gaztelubide taldearekin, master kategorian.

Txapelketa berean, 301 modalitatean, 300 jokalariren artean 13. izan zen Pro kategorian.

Orain, Yokohama (Japonia) du begiz jota, han baitu Josebak hurrengo saio garrantzitsua, 2010eko otsailean.

IOSU ESNAOLA | REALEKO JOKALARIA

“Elkarrekin ondo moldatzen gara eta umore ona dugu”

Txikitatik lanean jardun da losu eta, azkenean, gauzatu du ametsa. Realeko lehen taldean dago aurten, 5 urte harrobiko taldeetan aritu eta gero. Debutatzea besterik ez zaio falta 22 urteko gazte oriotarrari.

Nola jaso zenuen albistea?

Kontratua bukatzeko neukan. Realak nahi izanez gero, urtebetez luzatuko zidan, baina lehen taldean jarraitzekotan.

Lesio larri samarra izan nuen –nahiz eta uste baino azkarrago osatu nintzen, azkenean– eta hondoa jo nuen horrekin batera. Egun hura negarrez pasa nuen eta etorkizuna erabat beltzikusi nuen. Baina, hurrengo egunean, Lorenek deitu eta nirekin kontatzen zutela esan zidan. Izu-garria izan zen.

Lehen taldean lehendik ere bazenituen lagunak.

Aurrez ere bigarren taldean nirekin jokatu zuen jokarlari asko dago. Lehen aldiz aldagelan sartzean, harritu egiten zara inguruan ditzunak ikusita, baina aurrez banuen tratua batzuekin eta horrek asko balio du.

Orain esan dezakedana da, koadrila baten pareko garelara Realean. Guztiok guztiokin harreman ona dugu eta, gainera, oso umore onekoak gara.

Aldagelaz aldatu zara beraz.

Bai, eta nabari da lehen mailako talde baten instalazioak direla Zubietakoak. Aurrez egoten nintzen aldagelan takila txiki bat neukan gauzak gordetzeko eta gutxi gehiago.

Orain dudana luxuzkoa da, gehiegi niretzat. Nire ize-



Esnaola gustura dago Realean daraman ibilbidearekin.

KARKARA

Orain dudana luxuzkoa da, gehiegi niretzat. Nire izena duen takila bat ikusteak errespetua eta guzti ematen dit

na duen takila bat ikusteak errespetua eta guzti ematen dit.

Lehenengo aldiz deialdian sartu zinenean zer sentitu zenuen?

Orioko festak ziren. Izu-garrizko ilusia egin zidan.

Eskuak jarri, taldeko partaide sentitu, Lilloren esanak... jostailu berria duen ume txikiaren pare sentitu nintzen

Gainera, herritar ugari bertaratu zen zelaira eta, baloiarekin pixka bat jolasten hasi nintzenean, koadrilakoak kantari sumatzean, zirrara berezia sorrarazi zidan.

Aldagelansartu nintzean prestatzaile fisikoa izan nuena etorri zitzaidan lehe-

na. Gogoratzen dut esan zidana: *Sansen igarotako garai txarretaz gogoratzen al zara? Iritsi da zure momentua eta goza ezazu.*

Gero guztiak eskuak jarri, taldeko partaide sentitu, Lilloren esanak... jostailu berria duen ume txikiaren pare sentitu nintzen.

Minutuak izateko aukerarik ikusten al duzu?

Ez da erraza izango, baina iritsiko da momentua. Denboraldian 42 partida jokatzeko dira eta une batean edo bestean egokituko zait jokatzeko.

Iristen denean, aprobe-txatu egin beharko dut.

Medioak, bideo-jokoak... nola daramazu hori guztia?

Ongi, ahalik eta modu naturalenean eramaten saiatzen naiz. Esan didate FIFA jokoan agertzen naizela, eta eskas antzekoa omen naiz! kar-kar! Bestela ondo moldatzen naiz, eta prentsako lagun bat edo beste ere egin dut. Lehen prentsaurrekoan sentitu nintzen arraro, baina berria nintzen. Orditik hona ez dut ia inorekin hitz egin, ez dut jokatzeko eta.

Kalean aldaketarik sentitu al duzu?

Egia esan behar bada, ez. Jarraitzaile sutsuenek ezagutzen naute kanpoan, herrian, agian, zerbait gehiago nabari da. Aurretik burua jaso eta *gero arte!* esaten zidaten askok orain taldearen eta nire egoeraren inguruan galdetzen didate, eskertzekoa da.

Ilusioz gainezka nago, oso gustura. Jokatzeko irrika handia dut eta handia litzateke san Nikolas egunean Real Unio-nen aurka Anoetan dugun partidako jokatzeko. Ea Primerara igotzen garen aurten.

GORKA EIZMENDI | RALLYETAKO GIDARIA

“Urte bukaerarako gidatzeko moduan izan nahi nuke”

Gorka Eizmendik 22 urte ditu. Aiarra da jaiotzez, nahiz eta bizitzaren zati handiena Orion eman. Rallyetako munduan dabil buru-belarri Aritz Olasagasti lagun duela. Subaru Impreza auto berria prestatzen ari da egun.

Nolatan hasi zinen autoen kontuetan?

Txikitatik izan naiz auto-zalea. Hankak pedaletara iristen zitzaizkidanetik gidatzen dut, eta horretan aitak ere izan du zerikusia.

Eta karreretan aritzeko modua, nondikegin zenuen?

Bada, bizio pila bat albo-ratuz. Karreretan aritzeak diru asko balio du, eta bizioak ez badira kentzen ezin da segi.


Nik ez dakit mekaniko lanak egiten, eta autoa prest izateak ere badu bere kostua. Zarauzko Burkide tailerrak laguntzen dit horretan.

Zer txapelketatan hartzen duzu parte?

Euskal Herriko txapelketan gabiltza Aritz eta biok. Hiru txapelketa daude eta bitan hartzen dugu parte. Hainbat kategoriatan daude, autoaren arabera. Hasieran, kategoriatan batean ginen BMW autoarekin, baina gero beste batean Subaruarekin. Baina Subaruak su hartu zidan bigarren karreraren. Datorren urterako, Kantabrian karreraren batean parte hartzeko asmoa dugu.

Nolatan hartu zuen, bada, su automobilak?

Istripu bat izan genuen, autoa irauli eta kanbioetako kaxan, pitzadura baten ondorioz, bertako olio turborioa joan zen. 1.200 °C inguru izaten da eta, horregatik, uste



Eizmendi lanetik irten berritan koadrilakoek duten lokalean.

KARKARA

Auto ona zen, 3. kategoriako onenen artean zegoen. Azkoitian esaterako, seigarren sailkatu ginen

dugu hartu zuela su autoak. Ezer gabe geratu ginen.

Eta orain?

Orain beste Subaru bat erosi dut eta osatzen ari gara orain, abendurako prest izatea nahi nuke.

Aurreko autoa ona zen, 3.

Hemen jende gutxik jarraitzen gaitu. Azpeitian, Orion arrauna baino gehiago bizi dute haiek rallyen mundua

kategoriako onenen artean zegoen. Lehen hamarretan ibiltzeko modukoa; Azkoitian, esaterako, seigarren izan ginen.

Lehorrean auto asko hobekak ziren dudarik gabe, baina bustian ondo ibiltzen zen gurea eta, horri gure ausardia

puntua gehitzen badiozu, emaitzak lortzen dira.

Jakin dugunez, karreraren bat egin omen duzue 5. martxa kendu gabe?

Azpeitian gertatu zen hori. Hasieratik kotxea ez zebilela ondo ohartu ginen, baina aurrera egin genuen. Bide-erdian kanbioa kateatu eta 5. martxan geratu zen, ez atzera, ez aurrera.

Karrera amaitu behar eta horrela iritsi ginen. Bigarren martxan hartu beharreko bi kurba baziren, eta hor kosta zitzaigun aurrera egitea.

Aritz Olasagasti Errota izaten duzu kopiloto.

Bera ere zalea da motorraren munduko gauzetan. Anaia zaharragoa du eta bera ere zalea izateak halakoetara bultzatzen du.

Autoarekin erokeriak egiten genituenean lagun izaten nuen, eta bidelagun izatea proposatu nion eta berak onartu.

Noiz izango zaitugu berriz asfalto gainean?

Urte bukaeran, abenduan, izan nahi nuke gidatzeko moduan, baina autoa preparamatzeko denbora asko eskatzen du.

Ez du zerikusirik kaleko auto normal baten prestaketarekin.

Nola ikusten duzu hemengo zaletasuna?

Hemen jende gutxik jarraitzen ditu rallyak. Azpeitiarekin ez du zerikusirik. Orion, arrauna baino gehiago bizi dute haiek rallyen mundua.

Ni gogoratzen naiz, Txus Jaio ikusteko izaten nuen ilusioa. Orain Azpeitiko kaleetan ezagutu egiten naute, sinesgaitza dirudien arren.

IGOGAILUA DA BERRIKUNTZA NAGUSIA

Urriaren 8an ireki zituzten udaletxe berriaren ateak

Lau hilabete eta erdi iraun du lanak, eta hobekuntza handiak egin zaizkio; irisgarritasuna, esaterako.

Lanpostuak sustatzeko Espainiako Gobernuak bideratu-tako diru laguntzarekin lau hilabete eta erdiz udaletxea berritzen ari-ondoren, urriaren 8an, udal bulegoak kultur etxetik betiko tokira pasatu ziren.

BERRIKUNTZAK

Udaletxearen itxura erabat aldatu da barrutik, nahiz eta bulego gehienek lehengo lekuan jarraitzen duten, jendearentzat gauzak gehiegi ez aldatzeko.

Igogailua da berrikuntza nagusia; izan ere, eskailerako tartea aprobetxatuz, beheko solairutik bigarrenetara igo ahal izango da. Horretarako, udaletxe azpiko gastronomia elkarteari txoko bat kendu behar izan diote, igogailuaren oinarria han jartzeko, eta bigarren solairuko artxiboko sarrerako horma metro eta erdi inguru atzeratu behar izan dute, horrela, artxiborako leku gutxiago geratzen bada ere. Gainera, lurra eta hormak erabat konpondu dituzte, eta irisgarritasun plana betezeko, lurreko koska guztietan arralak jarri dituzte.

Komunak ere goitik behe-ra berritu dituzte eta, bide batez, ezinduentzat egokitu. Argiteria osorik aldatu dute, behar zen lekuetan PVCzko



Erabat itxuraldatu da udaletxe barrua.

KARKARA

Postetxeak eta bake epaitegiak ate bana izango dute, udaletxeko sarreraren ondokoa

leioak jarri dira eta berogailua eta barruko komunikazio sarea ere –internet, telefono-

ak, ordenadoreak– egungo beharretara egokitu dituzte.

POSTETXEA ETA EPAITEGIA

Orain arte posta zerbitzua eta Bake-epaitegia udaletxean baziren ere, hemendik aurrera sarrera independentea izango dute. Eraikin berdinean egongo dira, baina postara edota epaitegira joateko ez da udaletxeko harreratik pasa behar, horretarako beste ate bat ahalbidetu baitute sarrera nagusiaren aldamean.

LABUR

ARTEA

Reziklarte 09

Hiri hondakinak birziklatzeko lotutako edukiontziekin, orain dela gutxi kaleetatik baztertu zituzten horiekin, arte-jarduerara bat egitea zen Urola Kosta Udal Elkartearen proposamena. Aurkeztutako lan guztien artean, 26 aukeratu dira, eta horien artean dago Marta Pineda herriarrarena. Las-ter, San Markos Mankomunitateko herrietan ikusgai egongo dira lan horiek guztiak.

ERROMERIAK

Aristerrazuko plaza martxan

Aurtengo Aristerrazuko denboraldia urriaren 25ean abiatuko da, Laja gaztearen eta Narbaizaren trikiti doinuekin. 18:30ean hasi eta 21:30a bitartean, ekainaren erdialdera arteko igandetan egingo dira. 28 inguru erromeria egitea aurreikusi du antolakuntzak.

BIRZIKLATZEKO

Konposta ikastaroa

Urola Kostako Udal Elkartearen ekimenez, etxean konposta egiteko ikastaroa jarri da martxan. Izen-emateko eta argibide gehiagorako 943 89 08 08 telefonora deitu behar da. Urriaren 16a da horretarako azken eguna.

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIK

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

IER

Dejatekoak eta tarteak eramateko
Txakur txakur

Zubipean

Tfnoa: 943 83 09 55

AIAKO LEIHOA

Setati, temoso...(I)

Urtea aurrera doa eta hasi da berriz ere ehi-za denboraldia, nahiz eta, nire iritziz, ez den pasa den urtekoa bezalakoa izango. Izan ere, zein ez da gogoratzen, Errege Egunaren ondorengo elurtean naturak erakutsi zigun alderdi polit hura. Hainbat eta hainbat hegazti migratzaile gure zeruan hegaka, kulixka saldoak, eta hegabera banda andana zelaietan pausaturik jateko zer baiten bila. Askok horrelakorik sekula ez zutela ikusi zioten, eta beste hainbatek natura orduan ikusten zela zioten, nahiz eta natura beti horegon, horrelakoetan bakarrik gogoratzen da zenbait, baina hori beste istorio bat da...

Goaz, bada, gaira. Egun haietan elurra egin zuen gogotik, eta gure basoetan migra-

tu zuen beste hegaztietako bat oilagorra izan zen, baina ez ohiko eran. Horiek ere egun bakar baterako asko etorri ziren, egunez zeingauetz, iparraldeko negu gordinari alde eginez. Jakina denez, Aian, non etxe bakoitzean gutxienez ehiztari bat bizi den, laster hasi zen kontua zabaltzen: *Harek 7 bilatu omen dixkik halakota holako tokitan... Guk, berriz, zauzta bat ikusiu ta*

ordula urdunen 10 billau omen dixkik ta 2 bota... Ba guriak etxera bueltau ber izan dik txakurra dana erotu zayok eta onbestekin! Egunaren erdirako gremioko guztiak jakinaren gainean geunden ezohiko gertaeraz. Harrigarriena iluntzean izan zen, txakurra albaitariarengana eramatera gindoazenean, kotxetik oilagor bandak ikusi genituen, lehendabizi hiru, gero bost,

ondoren beste lau. Txundituta bueltatu ginen etxera ikusitakoa sinetsi ezinik.

Hurrengo egunean, jendearen esamesak handiagoak ziren; ba omen ziren 10 baino gehiago bota zituztenak eta, egunez, gero eta gehiago ikusten ziren etortzen. Hala ere, aitortu beharra daukat okerrera iluntzean gertatu zela, oilagor batzuk ikusteko asmoarekin terrazara atera nintzen, ikusi egin nituen, baina handiagoa zen entzun nuena. Ez nituen hogeigutako tiro hotsik entzun gabe. Benetako gerra zirudien, eta lotsagarri samarra ere bazen, inoiz ehizera joan ez zen jendea ere ibili baitzen eskopetak hartu eta oilagorrak botatzen.

...hainbat hegazti migratzaile gure zeruan hegaka, kulixka saldoak eta hegabera bandak zelaietan pausaturik...

Ez nituen hogeigutako tiro hotsik entzun gabe. Benetako gerra zirudien, eta lotsagarri samarra ere bazen...

JON ANDER AZPIROZ

TXOKOAK ETA JENDEA

Iruretagoenagako eskola



70 urte inguru ditu irudi horrek. Garai hartan, auzoetan ematen zen eskola eta ume horiek Iruretagoenaga baserrian biltzen ziren ikasteko. Argazkia Joakintxo Txotak ateratakoa omen da. Ezkerretik hasita goian: Juanita Iruretagoiena, Rosario Alkorta, Maria Rezabal, Juanita Orbegoza, Juanita Rezabal, Angeles Salsamendi, Viktoria Orbegoza, Maria Alkain, Benigna Salsamendi eta Maria Irazusta. Erdian: Agustin Rezabal, Lutxio Alkorta, Roman Zulaika, J. M. Eizmendi, Jose *sacapelos* maisua, Jose Jauregi, J. J. Rezabal, J. M. Arruti eta Viktor Lertxundi. Behean: Franzisko Ibarguren, J. M. Irazusta, Pedro Eizmendi, Juan Irazusta, Lorenzo Orbegoza, Juanito Alkain, Jeronimo Alkorta, Konrado Lertxundi, M. M. Zulaika eta Jose M. Eizmendi.



Iñigo Gaiton eta Joseba Verhegge, atzea emanda, Puertasen abentura zirraragarriak entzuten.

KARKARA

Orioko surfistak munduaren beste puntara

MIKEL ARANZABAL

Australia eta abentura bat dira, eta surfak ikaragarritzko lotura du abentura zaletasunarekin. Hori izan daiteke horrenbeste surfarik Australia eza gutzeko gogoia izatearen arrazoi nagusia eta, aldi berean, hainbat eta hainbat oriotar munduaren beste alderai-no joatearena ere bai.

Kontua da urtero badoala dela herritarren bat Australiara, eta ez pentsa soilik udako oporraldia pasatzera joaten direnik; bai zera! luzerako joaten dira; herriminak harrapatzen dituen arte.

Urriaren hasieran, Iñigo Gaiton eta Joseba Verhegge

Kostako beste herrietatik bezala, Oriotik lagun asko joaten da Australiara; surfleriak, gehienbat.

Iñigo Gaiton eta Joseba Verhegge bildu ditugu hara joateko bezperan, Australian lehenago izan direnen aholkuak eta pasadizo dibertigarrienak adi-adi entzuteko.

Errustan elkartu, zerbezak edan, txirri bat edo beste erre eta, lagunartean, hemen da kontatu digutena; dena ez, jakina, gauza batzuk ez baitira KARKARAN kontatzekoak.

joan dira; iaz, Imanol Bellido, Andoni Irigoien, Joseba Maioz, Iban Urretabizkaia, eta Iñaki Verhegge izan ziren; 2007an Beñat Karrera eta Gorka Puertas; eta horien aurretik beste asko ere bai. Azken hiru urte-

etan izan direnekin aritu gara solasean, joan nahi duenak zer espero duen han aurkitzea eta Australian izan direnek zer bizi izan duten jakiteko.

Bi orduz aritu gara hizketan, eta kontatu dizkiguten

istorioekin barrez lehertu gara. Zerbezaren edota aireko kearen eragina izan daiteke, baina ea irakurleari ere sentsazio bera iristen zaion. Diote-nez, Australia magikoa da, ametsetako bidaia.

Elkartu genituenetako zaharrenekin hasiko gara. Gorka Puertas eta Beñat Karrera 2006an joan eta 2007an itzuli ziren Australiatik, tartean bi hilabete Indonesian pasa ondoren. Beñatek ezin izan du hitzordura azaldu, baina Puertasek kontatu dizkizkigu kontatu beharrekoak.

Tira Gorka, agian, lehenengo izanagatik, galderarik zailena zuretzat. Zergatik joan zineten Australiara?

Nik, bereziki, betidanik izan dut Australia ezagutzeko gogo; txikitan beti izaten da herrialderen batekin fijazioa. Munduaren beste aldean dago eta urruti ikusten nuen.

Egun batean, joatekoa zela esan zidan Beñatek eta handik hamabost egunetara hegazkineko txartela erosi nuela esateko deitu nion. Hura joan zen lehenengo eta lau hilabetetara ni.

Lehenengo hilabete horietan, Beñat lanean aritu zen eta, gero, ni joandakoan, oporrak heldu ziren, arraun denboraldiaren bukaera txakurra-rena jaso bainuen. Han ibili ginen, herrialde osoa zeharkatuz eta mila istorio bizituz. Guztira, sei hilabete egon nintzen Australian, Beñat hamar, eta han erositako furgoneta zaharrari 22.000 kilometro egin genizkion; pentsa zenbat mugitu ginen!

Beraz, alderikalde ibili zineten?

Bai. Hilabete bat egon ginen leku batean geldi, eta azkenekoa ere bai, furgoneta saldu ahal izateko. Erotuta ibili ginen saldu nahian, eta hona ekartzeko kontenedoreak zenbat balio zuen ere galdetu genuen, baina, jakina, txantxetan ari ginen, aldeztu aurretik ere bagenekien eta gure eskutik kanpo zegoela. Polita izango litzateke furgoneta hura hemen izatea.

Baina biak surflariak... edo zaleak zarete, behintzat. Surfik egingo zenuten.

Jakina, bada. Hori zen hel-

buru nagusia. Surfean egin, tokiak eta jendea ezagutu, ingelesekin... Barrezka hasi dira denak- Bai, bai, serio. Badirudi ondo gelditzeko diodala, baina asko ikasi nuen.

Surfari eutsiz, zergatik joaten da horrenbeste surflari Australiara? Olatuak handiagoak al dira, luzeagoak?

Olatuak hemengoak bezalakoak dira, baina ez dakizu hondartzak non hasi eta bukatzen diren. Gainera, mundu osotik joaten da jendea surf egitera hara eta lagun mordoa egiten duzu. Esaterako, bidaiaren zati handi bat holandar batzuekin egin genuen -argazkietan ageri dira- eta, aurtengo udan Orioko kanpian izan dira, bisitan. Brasil dar batzuekin ere ondo moldatu ginen, han fama onik ez duten arren.

Furgoneta erosi zenutela aipatu duzu. Horrela egiten al da bizimodua?

Furgoneta etxea bezalako da. Ohea, sukaldea... zaharrak dira, baina denetarako prestatuta daude. Gainera, hango herriak ere kanpotarrentzat prestatuak daude. Merenderoak parrila eta guzti, dutxa eta komun publikoak... ez da ezer ordaindu behar. Gogoratzen dudanez, behin ordaindu genuen zerbait dutxatzeagatik. Hotza egiten zuen eta dutxatzea debalde bazen ere, ur beroa izateko pagatu egin behar zen; baina oso gutxi: bost minutuko ur beroagatik 30 euro zentimo inguru.

Bidaiaren berri eman zenue-nean, zer esan zizuten etxean?

Hasieran, ez zidaten sinisten. Antza denez, ez zuten uste bizirauteko gai izango nintzenik, baina horrelako bidaiak heldutasunerako bidea jorratzen dute eta primeran etorri zitzaidan niri. Ez nuke esperientzia hura ezergatik aldatuko. Iñigo Gaitoni eta Joseba Verheggeri aukera aprobeatzeko gomendatzen diet; bizi eta bizi, besterik ez.



Imanol Bellido, Andoni Irigoien, Joseba Maioz, Iban Urretabizkaia, eta Iñaki Verhegge ere iaz izan ziren Australian. Denak koadrila berekoak dira, baina Bellido eta Verhegge joan ziren lehenengo eta, gero, besteak atzetik. Iban

kenduta, beste guztiak agertu zaizkigu hitzordura, eta bazuten zer kontatu, isildu ere ez ziren egiten-eta.

Zuek zer esperantza joan zineten Australiara?

Gutxigorabehera, Puertasek aipatu dituen arrazoiz ber-



GORKA PUERTAS / IÑAKI VERHEGGE

dinengatik, baina, batez ere, negutik ihesi joan ginen, azkenean, surfean ez baiginen asko aritu.

Guk ere furgoneta erosi genuen eta 9 hilabetez hara eta hona ibili ginen, eta beste hilabetea egin genuen Balin (Indonesiako uhartea). Gero, Oriora itzulitakoan, prime-

ran asmatu genuen, uda baitzen berriz, baina hurrengo negua gogorra egin zitzaigun.

Zuek ere Indonesiara? Gertu al dago?

Hegazkinez, Sydneytik 6 ordutara. Behin Australian izanda, bidaia aprobetxatu beharra dago.

KARRERA ETA PUERTAS

Lehenengo hilabeteetan, Beñat lanean aritu zen eta, gero, Gorka joandakoan, oporrak heldu ziren, arraun denboraldiaren bukaeran txakurrarena jaso baitzuen Gorkak.

Han ibili ziren, herrialde osoa zeharkatuz eta mila istorio bizituz. Guztira, sei hilabete egon zen Gorka Australian, Beñat, hamar, eta han erositako furgoneta zaharrari 22.000 kilometro egin zizkioten.

BELLIDO, IRIGOIEN, MAIOZ, URRETABIZKAIA ETA VERHEGGE

Gutxi gorabehera, Puertasek aipaturiko arrazoi berdinegatik, baina, batez ere, negutik ihesi joan ziren, azkenean, surfean ez baitziren asko aritu.

Hauek ere furgoneta erosi zuten eta 9 hilabetez hara eta hona ibili ziren, eta beste hilabetea egin zuten Balin (Indonesiako uhartea). Gero, Oriora itzulitakoan, primeran asmatu zuten, uda baitzen berriz, baina hurrengo negua gogorra egin zitzaien.

GAITON ETA VERHEGGE

Joaneko txartela hartu dute, baina ez dakite noiz itzuliko diren. Sei hilabete, urtebete... agian, lehen hilabetean etxean izango dira berriz.

Gero, besteak bezala, Indonesia aldera joango dira.

EUSKALDUNAK AUSTRALIAN

Ez da gugatik izango, baina euskaldunok langile onaren fama dugu han. *Where are you from? Basque Country?*... barrura!

ENBORRA ALTXATZEN

Irigoienek enbor handi bat altxatu zuen behin, harri-jasotzaileen tankerara, begira zeudenen harridurarako. Orain, euskaldunon balentria kontatuko dute, seguru asko, hango langileek.

Bizimodua Gorkarenaren eta Beñatenaren antzekoa izango zen seguru aski. Konta ezazute anekdotaren bat-edo. Baduzue, ezta?

Pila bat ditugu, baina aukeratzen jakin behar.

Behin, hamar bat egun generamatzen Urunga aldean eta, bada, Orion aritzen garen moduan, Bartzelona eta Real Madril futbol taldeen inguruan eztabaidan ari ginen.

Uste dugu, norbaitek, ikamikan ari ginela pentsatuta, poliziari deitu ziola, hantxe agertu baitziren bat-batean. Gu hasieran lasai ginen, furgoneta miatzen hasiziren arte. Katxinba bat aurkitu zuten, noizean behin belar pixka bat erretzeko erabiltzen genuena eta, han ilegala denez, kalabozoan sartu gintuzten.

Istorioa ondo kontatu behar da, izan ere, Joseba Maioz surf egiten zen hori gertatu zenean eta, deika jardun baginen ere, bera ez zen uretatik ateratzen. Behin lehorreratu zenean, furgonetara itzuli eta inor ez zegoela ikusi zuen. Lagunik ez, pasapor-tea falta... hasieran adar jotze bat zela uste zuen. Toailarekin lehortzen ari zela, polizia auto bat hurbildu zitzaion eta atzean zeramaten txakurren remolkean sartu zuten. Eserita, erdi etzanda, txakurraren moduan eraman zuten polizia etxera.

Denak elkartu ginenean, polizia gu beldurtu nahian hasi zen; bi hilabete espetxeratuta egon beharko genuela esan ziguten, ez dakigu zenbat diru ordaindu beharko genuela... argi utzi genien behar adina denbora egongo ginela kalabozoan, baina ez genuela zentimorik ordainduko.

Gainera, kalabozoa primerakoa zen eta aspaldian ez genuen horrelako ohe erosorik probatu. A zer lokuluxka egin genuena!

Azkenean, poliziarekin ados jarri eta haiek bi aukera eman zizkiguten: bortxazko lanak egitea edo psikologo batengana jotzea. Bigarrenaren onartu genuen eta psikolo-



goari ere egin genion debaldeko bisita. Hark inongo drogaren adikziorik ez genuela ikusi eta, baldintzarik gabe aske utzi zigun. Jatorra tipoa.

Beste batean, karabana batean zegoen lan-ofizina baten kanpoan enborzati bat ikusi genuen lurlean. Ordenagailu bat zegoen mahai gainean eta enborra eseritzeko erabiltzen zuten.

Kontua da, hantxe hasi ginela zenbat pisatuko ote zuen eztabaidan eta bertako langileak esan zigunez, alemaniar batek gerria baino pix-

ka bat beheraxeago arte altxa zuen. Kriston azaina egin izan balu bezala kontatzen zuen, gainera.

Andoni hasi zen astoarena egiten eta, aiar kasta erakutsi nahian edo, altxako zuela esaten hasi zen.

Enborraren inguruan jarri, nondik heldu aztertu, eta han hasi zen tiraka.

Kontuz-kontuz enborra izkinetatik heldu eta belau-netara, belau-netatik gerrira eta, behin bularrean jarrita, kolpeka altxa zuen sorbalda-raino eta han berdindu.

Gero, lurlean uzterakoan, ia ihes egin zion eta eskuak eta lepoaldea arrastaz beterik eta ubelduta izan zuen egun batzuetan.

Orain, alemaniarren balentria kontatu beharrean, euskaldunona kontatuko du, seguru asko, bertako langileak.

Zer da Australiatik gehien gustatu zaizuena? Bizimoduaz ari naiz.

Gehien gustatu zaiguna... egunean egunekoa bizi dute-la. Hori da gehien inpatatu



IÑAKI VERHEGGE



KARKARA

gaituena. Lo egiteko tokietan, zerrenda bat egoten da, lane-rako izena emateko. Gero, nagusia etorri eta behar adina langile hartzen ditu, beti ere, zerrenda jarraituz. Egunean egunekoa ordaindu, beltzean, eta kitto.

Bertakoek, australiarrak izateagatik bakarrik 800 euro inguruko pentsioa jasotzen dute hilero, bizita osoan. Beraz, surfista australiar asko pentsio horretatik eta beltzean irabazten duten dirutik bizi dira.

Guk, azkenean, nagusi bat

edo birekin konfiantza hartu eta horrela egin genituen lehen bi hilabeteak. Ez da gugatik izango, baina euskaldunok langile onaren fama dugu han. *Where are you from? Basque Country? ...barrura!*

Harritzekoa da, baita ere, bada, esaterako, langile bat lan orduetan errepidetik badoa eta olatu onak daudela ikusten badu, autoa gelditu, surfeko ohola hartu eta surfeatzera joaten dela. Badaki inork ez diola kargurik hartuko. Filosofia hori dute, patxadaz ibiltzekoa.



BERRIA: ESTILO LIBURUA (2006)

AUSTRALIAKO COMMONWEALTH

Herritar izena: australiar.

Eremua: 7.686. 850km²

Hiriburua: Canberra (canberrar).

Hiri nagusiak: Sydney, Melbourne, Brisbane, Perth, Adelaide, Newcastle, Gold Coast, Wollongong, Hobart, Darwin.

Dirua: dolar australiarra = 0,059 euro

Hizkuntzak: ingeles (ofiziala; 579,1), txinera (%2,1), italiara (%1,9), beste (%11,1), zehaztugabe (%5,8). Australian 200-300 hizkuntza aborigen zeuden, eta gehienak desagertu egin dira. Egun 70 hizkuntzak jarraitzen dute bizirik, eta horietako asko ere desagertzeaz daude: oso gutxi izango dituzte mila hiztun baino gehiago (tiwi, kala lagaw ya, warlpiri...).

Biztanleak: 20 milioi. Zuri (%92), asiarrak (%7), aborigen eta beste (%1).

Erligioak: katoliko (26,4), anglikano (%20,5), bestelako kristau (%20,5), budista (%1,9), musulman (%1,5), beste (%1,2), zehaztugabe (%12,7), sinesgabe (%15, 3).

Joseba Verhegge, Iñakiren anaia gaztea, elkarrizketa egin eta hurrengo egunean joan zen Australiara; eta Iñigo Gaiton, berriz, egun bat beranduago.

Nola dauden? Nork daki, lagunaren artean galdetu eta inork ez baitu haien berri. Hala ere, lagunaren kontuak entzun ondoren, hasi berri duten bidaiaz zer espero duten eta harako egin dituzten planen inguruan galdetu genien.

4Guk joaneko txartela hartu dugu, baina ez dakigu noiz itzuliko garen. Sei hilabete, urtebete... agian, lehen hilabeteetan etxean izango gara, berriz.

Gero, beste hauek bezala, Indonesia aldera joango gara. Txartela erositako dugu.

Horrez gain, zer espero dugun? Bada, edozein gazte gure adinean egingo lukeena: bizi, surfeatu, parranda egin, nesketan saiatu... hemengo neskek oso ikusiak gaituzte eta ez dugu batere ligatzen. Eahan zorte handiagoa dugun.

ADARRETATIK HELDUTA

Bultzi leiotik, Europa

Denbora askotxo generaman koadri-lan bidaia bereziren bat egin behar genuela komentatzen. Baina betikoa, komentatu bai, baina bere horretan geratzen zen. Ba aurten ez! Unibertsitatea hurbiltzen zela-eta, askoren bideak bananduko ziren bel-durrez, aurea hartu eta, ustez, aro baten amaiera markatuko zuen bidaia prestatzen hasi nintzen 5 lagunekin. InterRaila egiteko tentazioa piztu zitzaigun orduan.

Esan beharrean nago nire helburua ez dela horren propagandarik egitea, baina diru gehiegi gastatu nahi ez duenarentzat aukera bikaina da txartel hori, Europako tren gehientsuenetan prezio baxuan bidaiatzeko aukera ematen baitu.

Abuztuaren 18rako egin genuen zita, hegazkinez Frankfurtera joan eta Viena-
ra trena hartzeko. Ondoren Budapest, Krakovia, Praga, Dresde, Kolonia, Berlin eta Paris bisitatu genituen, irailaren 2an Hendaian amaitzeko. Primerakoa izan zen, baina baita neketsua ere, izan ere, bizkarrean hamabi kiloko asko pisatzen dute!

Era horretako bidaia egiteak, ahalik eta diru gutxi-
narekin, txoko asko ezagutzeko aukera ematen du. Ostatueta (gazteen albergeak) eta gaueko trenetan mundu osoko jendea ezagutzeko aukera izan genuen: Estatu Batuetan bizi zen txi-



ELI HÜGÜN
ZUZENBIDE IKASLEA

**Diru gehiegirik
gastatu nahi ez
duenarentzat
aukera bikaina da
InterRail txartela**

**Bidaiatzeko
munduarekiko
ikuspegi
propioa izatea
dakarkigu**

natar batekin hasi eta Paris-
en bizi zen eta poxpolu kaxak apaintzea afizio zuen indiar batekin amaitzeraino. Bisitaturiko herrialdeetako janari, erlijio eta kulturaz gain, zure antzera dabilen jendearen ohiturak, sarritan arrotz zaizkigunak, ezagutzeko aukera aparta

ematen digu bidaiatzeko estilo horrek. Azken finean, estilo bat baita motxileroa-rena.

35 urtetik gora daramatza konpainia horrek mundu osoko jendea Europa eta inguruko hainbat herrialde modu independente eta askean ezagutzeko aukera ematen. Hasieran 21 urtez azpikoentzat bazen ere, gaur egun ez du adin mugarik. Bidaian jakin ahal izan dugunez, oso ezaguna da bai Ipar Amerikan eta baita Australi-
an ere.

Nahiko seguru esan dezaket ez dela azken aldia izango horrelako abentura batean murgiltzen naizena, eta antzeko planetan zabiltzaten guztiei esan nahi nizuke benetan merezi duela horrelako bidaia egitea eta zuen planekin aurrera jarraitzeko. Ezagutzen ez zenutenoi, edo horrelako zerbait egitea inoiz bururatu ez zitzaizuenoi ere gonbita luzatu nahi nizuke, ez baitzarete damutuko.

Noizean behin aberritik kanpora ateratzea ere ondo etortzen da, herrialdeak bisitatu eta jendearekin harremana izateko. Nik uste, bidaiatzeko munduarekiko ikuspegi propio izatea dakarkigula, eta hori pertsona gisa oso aberasgarria dela. Horregatik, kanpora irteteko aukera oro aprobetxatu beharko genukeela uste dut, eta batez ere gazteok. Beraz, badakizue: Bultzi leiotik, bisitatu Europa!

NIRE HONETAN

Zuloan ez du kutsatzen?

Aste honetako notizia txorua iruditu zait. *Diario Vascon* zetorren igandean, lehen orrialdean titularra eta 2.ean eta 3.ean notizia osoa.

Antza denez, proiektuaren aurkako ehunka protestei barre egin eta, orain, zulo batean eraiki nahi dute errausgailua. Toki estrategikoa aukeratu dute dagoeneko, Usurbildik eta Lasartetik ikusi ez dadin, begi-inpaktuak saihesteko.

Nire galdera da: zer lortuko dugu horrekin? gutxiago kutsatuko du? hondakin gutxiago sortuko dugu etxeetan? zer garrantzia du begi-inpaktuak, alderik alde tailerrak, fabrikak, hormigoia eta abar ikusten ohituta gaudenean? *Ikusten ez duen begiak, negarrik ez politikarekin ziria sartu nahi digutela uste dut nik; beste behin.*

Etxekalte joka dezakegu, erabat zulatu arte etxea, edota teilaturik gabe gelditu arte, baina naturak beti jarraitzen dio bere bideari. Gurekin edo gu gabe naturak aurrera jarraituko duela jakiteak, milioika urtetan egin duen bezala, lasaitasuna ematen dit.

Hala ere, bi aukera ditugu: berdinean jarraitu, edota *aski da!* esaten hasi.

Has gaitezen gure etxetik; urrutira joan gabe, Zubietatik, bertatik.

MIKEL ARANZABAL



**Sagasti
LEIHOAK**

ROBERTO SAGASTI
Tf: 605 732 913
Faxa: 943 020 213
ventas@sagasti@euskalnet.net
Bizkaia kalea, 20-1 B
20800 Zarautz



Baxonalde, 9
ORIO

**Joseba Ostolaza
TAXIA**

24 ORDUKO ZERBITZUA
Tf: 646 510 288



MOILA BAZTERRETIK

Schuss



JOKIN SALSAMENDI

Marea biziakin moila bazterreko azken eskailerak ere busti zaizkigu. Halaxe gatoz aurten ere KARKARA, itsasoko ur gaziz plaza aldea freskatzera. Idatziakinor mindu gabe irribarra sortzeko asmoz; edo zer

pentsatua...edo agian...nahi gabe... hunkitzea.

Nik ere aspaldian barrena mugitua dut. Duela hiru hilabete, Donostiako denda txiki batean zer ikusiko eta *Schuss* gaseosa salgai. Gure umetako freskagarri marka. Hantxe buru handi borobila, irribarrez bere txapela eta guzti. Horixe nahikoa izan zen haurtzaroko oroitzapenen errota martxan jartzeko.

Ondoren etorri ziren mutil koxkorra nintzeneko sentipenenak biltzen dituzten edukiontziak. Benitoren musikak haurtzarora narama. Txikia nintzeneko egun bereziak (festak, ekitaldiak, etab) doinu horizuen eta barrenean iltzatua dut oroitzapena. Berdin gertatzen zait kresala usaintzen dudanean. Marea betea, moila eta baporeak lehorre-

an eta haurtzarora. Sare eta karroen artean, plazan bueltak. Umetako garaia dakarkidan beste sentipena urgazitan busti ondoren eguzkipean lehorteza da. Gatz lehorteak azala erretzen dit eta haurtzarora astintzen. Antillako hondartza, dunak, tratedebainuak eta olatuetan murgiligerian. Hantzekoagertatzen zait marea behean dagoelarik hondartzan futbolearen ikusten dudanean koardilaren bat. Bat-batean haur bihurtu nahi dut eta korri baloiaren atzetik plaieroetan. Burdinazko largeroa bizkarean hartu eta garaipena ospatuz kantari lagunekin. Ikastolako niki berde, txuri eta gero urdinak soinean hondarretan dena ematen, gola sartzea amets bakarrarekin.

Noski, *Schussa* erosi egin

Bat-batean haur bihurtu nahi dut eta korri baloiaren atzetik plaieroetan

nuen eta etxera iristean ireki eta edan. Hau atsekabea! Edari hura ez zen *Schuss*. Freskagarri hark ez zuen umetako zaporea. Ez ninduen haurtzarora eraman. Engainatu egin ninduten edari modernoari zahar itxura emanez, baina jakin badakit garai horiek pasatuak direla eta ez direla bueltatuko. Eta orain nire semearen txanda datorrela bere doinu, usai eta zaporeen otarra betetzeko.

tel/fax: 943 89 00 69
Bikola kalea, 4. 28.300 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Preziozkoak, kopuruetan gabe

ZAPATA KONPONKETAK

Lanorainetan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larimotzetan: 09:00 - 13:00
Herriko enparantza, Orrio

INK

TAXISERVICE

Segurtasun, errespetu eta puntualtasun zerbitzuzaren alen zaharrez dihardugu.

IÑAKI ORBEGOZO
608 827 826
943 834 437
ink@inktaxi.es
www.inktaxi.es

HURGUNEKO ETA HERRIKO KANPOKO ZERBITZUA
EMPRESA ZERBITZUA
MEZKARITZA

ULACIA Group

IZARRA BIDEOA

BERRITZE
Plana 105 eurora arteko deskontua

oradaindu 10 hilabetetan
Interesik gabe
ORAIN ETXETRESNAK ERE BAI

Aritzaga 15. Orrio **TIE 21** 943 83 38 81

Goizeko
KAFETEGIA

☎ 943 83 28 55

Aita Lerxundi, 33 beheko - ORIO
Autobus parada ondoan

KOLON TXIKI
antzerkietako jateketa

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinaluak
eta ogilarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1 TEL: 943 83 16 57

AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

bodegasERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
lagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorio de Laurgain
Gailur eta Arlandegi.
Arahar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46. 0910 • 943 83 00 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

Nahikari

HAIKUR DENDA

Arantzazale Kalea, 35
28100 - Orio
Tel: 943 83 36 30
www.nahikari.es

iSLada
BESERKIN ZABERDA

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balsaren kalea, 2 behea Orio 20810
Tel: 943 131 896
e-maila: isladaorio@hotmail.com

Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

A&E
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 89 40 29 Fax: 943 83 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orio

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

AMILIBIA
ONTZIO LAK, S. L.

kinol partuetan proiektu
eta instalazioak

gri mailako lehiaketarako
arrazoi-ontziak

Olaskoegia, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com



Plaieroetan duela 40 urte

Aspalditik dago plaieroetan jokatzeko zaletasuna gure herrian. Argazkian 1968ko taldea ikusi dezakezue, 11-12 urteko mutikoak dira –nahiz eta Iñaki Sarasuak horren itxurarik ez izan, kasik orain duen altuera omen zeukan-eta ordurako–, 16 urteko entrenatzailearen gidaritzapean.

Entrenatzailea delegatua ere ba omen zen, eta odol

berokoa, nonbait. Tirabiraren bat tarteko, Francoren amnistia batek libratu omen zuen ezarri zioten zigorretik.

Orioko Arraunketa Elkartearen izenean jokaten zuten eta, esan digutenaren arabera, garai hartan Oxford-Cambridge-Orio estropada nazioartekoak jokatzeko hasi zirenez eman zizkieten kamisetak.

Hauk dira argazkian

ageri direnak: J. I. Peña –entrenatzailea–, R. Bergado, J. Oliden, E. Solaberrieta, T. Orbañanos, I. Sarasua, J. M. Atorrasgasti, J.K. Intxauspe, J. Egibar, Lopez Txispas bezala ezagunagoa, J. I. Sarasua, B. Gontan, J. J. Murgiondo eta J. I. Urdangarin.

ARGAZKIA: ARTXIBOA

INFORMAZIOA: IÑAKI SARASUA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

KARKARA

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48
 Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 15

Ille apalodegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - baje
 Tel. 943 13 47 29
ORIO

Dorromoro Denda
1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN
Tel 943 83 09 37

KRITIKA



Etxeberriari irailaren 27an eginiko omenaldiko argazkia.

TXINTXARRI

“Patxi Etxeberria 50 urtez plazagizon” liburua

Orioko Erretzabal baserrian jaio, Sai-kolako eskolan ikasi, 13 urterekin itsasora txotxo, soldaduska, Gorriyaneko Inaxirekin ezkondu eta biak Lasartera bizitzera, han Michelinek erakarritako etorkinek ia erabat erdaldundutako herrian Pescaderia Inaxi ireki, lana galan-ki egin, hiru seme hazi, eta bizi, jaioterriarekiko harremana sekula ere eten gabe. Eta bitarte horretan guztian bertsotan jardun, Orioko Cristino Zapaterorekin jende aurrean lehenengo aldiz

kantatu zuenez geroztik gelditu ere egin gabe, batetik bestera, garaiko bertsolari onenekin batera. Behin bertsolari txapelketa nagusiko finalera iritsi zen, 1980an. Orion askotan kantatu du: San Juan bezperako eskean, sanmartinetan, eta azken urteotan Sanpedro bigarrenen edadetuei egin ohi zaien omenaldian ere bai. Aurtengo sanikolasetan kantatuko duen bezala, beti bere ahots ederra eta etorri paregabearen bidez entzuleak goxatuz. Horixe izan da, hitz gutxitan, Patxiaren bizitza.

Horixe kontatu digu Patxi berak, luzeago eta hobeto, bere euskara bizi eta aberatsean, Xabier Lasak egin dion elkarrizketa interesgarrian. Elkarrizketa plazaratu berri den liburuan dator, Lasarterako bertsozaleek bultzatuta eta Lasarterako eta Orioko Udalek diruz lagunduta, argitaratu den liburuan. Elkarrizketaren osagarri, *Erretzabalen* bertsorik onenen bilduma ederra ere bada liburuan, bertsozaleen gozagarri.

IÑAKI ITURAIN

IKASLEAK IDAZLE



IMANOL GONZALEZ |

6. MAILA

Bizikletan earki!

Kexa bat dut eta KARKARA aldizkaria erabiltzea pentsatu dut konponbidea emateko.

Guk, Zaraguetako 5. eta 6. mailetako ikasleok, eskolara etortzeko, askotan erabiltzen dugu bizikleta. Baina ni, esaterako, Baxoalde kalean bizi naiz eta autopista azpiraino ez dago bidegorririk eta, ez beti, baina sarritan, jende asko ibiltzen da paseatzen eta bidegorria ez dagoen lekuetan jendeari ez zaio gustatzen gu bizikletan ibiltzea eta batzuek bronka txikiak botatzen dizkigute hori paseatzeko lekua dela esanez, arrazoi guztiarekin.

1., 2. eta 3. mailetakoak nizikletaz joaten dira igerilekura eta errepidea gurutzatu behar izaten dute.

Horregatik eskatzen dut bidegorria luzatzea; alde batetik Goxokiko parkeraino, eta beste aldetik Zaraguetaraino. Ez dut uste asko eskatzea denik.

LORETXU JATETxea

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

LURDES
BERRAINDIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibil Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 51 52
e-maila: zalduia@elkarrekin.gaztelazteko.eus

NATURISTA
KONTSULTA ORION

- Tratamendu naturalak —
- Oreak energetikoak —
- Kachas lamiak —
- Ilusio —

Mikel Fernandez Huelgas
naturagizona egileak

Tel: 655 726 291
www.orkaizteagutia.com

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Hasieratik bagenekien literatur lengoaia eta zinema lengoaia desberdinak direla, eta bakoitzak bere moldeak dituela. Filmak bere bidea egin zezan nahi nuen nik. Liburuan agertzen den dena dago filmean eta filmak eransten dion bigarren zatia erabat bat dator nobelaren izpirituarekin. Ez hori bakarrik, osatu eta borobildu egiten du istorioa. Nobela hobetu eta edertu egiten du”

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea
Berria
2009/09/26

OSPAKIZUNA



Goikokaleko azoka

Ezaguna da Goikokaleko festa batzordeak auzoagatik egiten duen lana; ez bakarrik alde zaharra biziberritzen, baizik eta herriko baserritarrei laguntzen eta oriotarren irakurzaletasuna sustatzen.

Larunbatean eta igandean, azoka berezia izan zen Goikokalean, Orioko baserrietako produktuak, bigarren eskuko liburuak trukaketa eta pintxo berezien eta sagardoen dastaketa. Hiruek ere oso harrera ona izan zuten.

ZORIONAK!



Haurrei eta gazteei

Udaleko Euskara Zerbitzuak egin ohi duen euskararen erabileraren neurketan, argi eta garbi geratu da herriko haurrak eta gazteak direla euskara egunerokoan gehien erabiltzen dutenak. Bi heldutik batek erdaraz egiten du, aldiz, haurren eta gazteen artean hamarretik zortzik, gutxienez, euskaraz egiten dute.

Nabarmena da hori kalean, eskoletan, tabernetan... baita aldarrikapenetako erabiltzen dituzten pankartetan ere, euskara hutsean baitira denak.

Zorionak, beraz, belaunaldi berriei: euskarak horrelakoak behar ditu.

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

KVKKI ARRI

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialdia Agote, 5. 30011 Zestoa	Trakuskerak San Prantzisko, 1. 20800 Zarautz	Alia Lertxundi, 21. 20810 Orrio Tel: 943 83 09 84
--	---	--

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnor: 943 83 59 00

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldiarako zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroak, eskalak, trinitarioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 83 49 37 / Fax: 943 83 49 41

e-mail: harnespil@harnespil.net

ORAIN DELA 25 URTE

Ertzaintzak ikurrina kendu zuen Zaldibiako udaletxetik

Hegaluzearen kostera txarra izan zen urte hartakoa. Aurreko urtean arrantzatutakoaren erdia bildu zuten arrantzaleek Euskal Herrian. Hala ere, 300 pezetan saldu zuten kiloa, eta, guztira, 8.000 tona hegaluze eta 3.000 zimarroi harrapatu zituzten.

Zimarroi gehiegi ez zuteenez harrapatu, arrain asko zegoen euskal kosta inguruan, eta kanpaina luzatzea erabaki zuten. Hegaluzearena ona izan ez arren, antxoarena oso ona izan zen, 83koan baino ia hiru aldiz gehiago arrantzatu zuten-eta.

KIROL ASKO GUREAN

Urriaren kirolak izan zuen protagonismoa gurean. Arraunnean, Oriok gutxiatik galdu zuen Petronor banderako bigarren jardunaldian, zumaiarrek irabazi baitzuten estropada, baita sailkapen nagusia ere. Lehen jardunaldian 11 segundo eta bigarrenen 5 segundo atera zizkion Oriori.

Bestalde, Olidenek Morgako idi-probetan irabazi zuen. Lehen egunean egin zuen bere lana, eta harria berria izateak lagundu egin zion horretan. 55 plaza eta hiru laurden eta 3,45 metro egin zituen Olidenen idi pareak.

Herri kirolei eutsiz, Aian Sega apustua egin zen urria hartan. 500.000 pezeta joka-

1984
URRIA

300 pezetan saldu zuten hegaluze kiloa eta guztira 8.000 tona harrapatu zituzten arrantzaleek

Isabel Ikutza Las Banderas saskibaloit taldean aritu zen, emakumezkoen lehen mailan

Osasun Sailak gripea ez zela txarra izango esan zuen, nahiz eta birusak aldaketak izango zituela adierazi

tu zituzten Lasarteko *Etxetxo* eta Bizkaiko *Antzua* segalariek. Ordubeteko saioa egin zuten Urdanetako Izeta base-riaren inguruan. Aurrez desa-

fio handia espero zuten.

Baina Orion izan zen beste protagonista bat kirolean. Donostiako Las Banderas saskibaloit taldea emakumezkoen lehen mailan zen urte hartan, eta bertan Isabel Ikutza oriotarrak jokatu zuen.

BANDERAK ETA GRIPEA

Ertzaintzak ikurrina kendu zuen Zaldibiako udaletxetik. Festak ospatzen zirenez, ikurrina eta Zaldibiako bandera jarri zituzten udaletxean. Barne Sailak, orduko arautegia errespetatzen ez zenez, kentzeko agindua eman zuen eta Ertzaintzak agindua bete.

Hala ere, bertakoek iluntzean berriz jarri zuten ikurrina udaletxean. Baina horren ondorioz, Guardia Zibilak kontrola jarri zuen herriko irteeran.

Osasun Sailak, bestalde, 1984ko gripea ez zela txarra izango esan zuen, nahiz eta birusak aldaketak izango zituela adierazi.

Urte hartarako epidemia Asian espero zuten, batez ere Hong Kongen. Urte horretarako hiru txerto atera zituzten, A-Filipinak, A-Txilek eta B-Sobietar Batasunak.

KILOMETROAK

Arrakastatsua izan zen Errenterian ospatu zen Kilometro-en festa eta marka guztiak hautsi zituen. Arratsaldeerdirako, 23 milioi pezeta bildu zituzten-eta.

JAIOTAKOAK

- Itsaso Manzanas Beldarrain, Orion, urriaren 9an.
- Lander Olariaga Miera, Orion, urriaren 5ean.
- Ander Hernandez Moreno, Orion, irailaren 25ean.


EZKONDUTAKOAK

- Franzisko Jabier Maritxalar Intxauspe eta Olga Saboleva, Orion, irailaren 19an.
- Mikel Kastresana Etxebarria eta Leire Fernandez Imaz, Orion, irailaren 26an.

HILDAKOAK

- Jesus Iturrospe Mugika. Orion, urriaren 11n. 82 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
BERRIKOAK - BALBUJAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AFNOR
Eusko Ingurune
ISO 9002

Esferako balbula
AFNOR kalitate ziurtagiriduna

Orioko
Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

JOSE CASALLO | TXUPINERO OHIA

“Hemen geratuko naiz hil arte, ez nau inork mugituko”

Jose Casallo jubilatu egin da. Apirilaren 26an hartu zuen erretiroa 65 urte bete berritan eta jubilatzearekin batera txupineroa izateari utzi dio. Orain lasai bizitzea erabaki du, hainbeste urte etxaferoak botatzeko lanari lotuta egin eta gero.

Lana uztearekin batera txupinero izateari uzteko erabakia hartu al zenuen?

Ez zen guztiz batera izan. Arraun denboraldi hau egitea erabaki nuen, baina abuztuaren erdialdean estropaden sasoiá amaitzean guztiz utziko nuela jakinarazi nien arduradunei.

Irailaren 23an giltzak bueltatu nituen eta hortik aurrera ez dakit ezer. Ez dakit oraindik inor badagoen lan hori betetzeko.

Zergatik erabaki zenuen txupinero lanak alboratzea?

Oso lotuta nengoelako. Arraun denboraldi guztian ezin zara inora joan, eta aurreko urteetan ez zidan axola, lanean bainintzen.

Baina aurten ezberdina izan da. Bakarrik egon naiz eta lanik egin gabe familiako guztiak kanpoan ziren bitartean.

Horretaz gain, susto bat edo beste jaso duzu azken urteotan?

Erremesa hau ona izan da, baina aurrekoa erretiratu egin behar izan zuten. Bota nituen 5 txupinetatik 3 aireratu aurretik lehertu ziren-eta.

Kontu handiz ibili beharreko lana da txupinak jaurtitzearena, edozein unetan istripuren bat gerta dakizuke eta.

Dena den, gustura arituko zinen.

Jakina baietz. Oso ongi



Jose Casallo irribarretsu, bere jubiliazioaz gozatzen ari da.

KARKARA

Ematen zidatenarekin, nire puruak eta kafeak ordaintzen nituen eta hori batek asko eskertzen du

zaindu naute denbora guzti honetan. Gainera, zer esanik ez alde ekonomikotik begiratzaren badugu.

Ematen zidatenarekin nire puruak eta kafeak ordaintzen nituen eta batek hori asko eskertzen du. Hortaz, jaietaz gozatu dut denbora honetan.

Behin ostu zizkidaten su-ziri batzuk, eta ez ziren haurrak izan. Arraunlari aski ezaguna zen ostu zizkidana

Zein da gordetzen duzun oroitzapenik onena?

Onena ez, txarrena daukat nik gogoan. Mendeurreneko Kontxako bandera irabazi ez izanak amorrazioz bete ninduen, are gehiago bandera eskuan izan eta gero.

Pozak, bestela, ugari. Oso

gustura aritu naiz, baina orain bilobak asko tentatzen nau eta askatasuna behar dut.

Arraunlariekin zer nolako tratua izan duzu?

Ez dut erlazio handirik izan. Egia esan, ez naiz arraun zalea, Oriok irabaztea nahi dut, zalantzarik ez izan horretan, baina ez dit sekula atentziorik eman arraunak. Hori bai, irabazten dutenean nire patrikarentzat eta, batez ere, herriarentzat onuragarria dela ikusten dut nabarmen.

Haurrak ere askotan gogai-karri egingo zaizkizu inguratzaren direnean?

Kontuz ibili beharrekoa da, haurrak beti saiatzaren dira etxeferoak hartzen edo botatzaren uzteko esaten didate. Ez da erraza haiekin tratatzea, ez baitute ulertzen honek duen arriskua.

Baina behin ostu zizkidaten su-ziri batzuk, eta ez ziren haurrak izan. Arraunlari aski ezaguna zen. Gustura zegoen estropada irabazi ostean, eta ni bat botatzaren ari nintzen bitartean berak bi ostu zizkidan, nahiz eta nik aurrez ezin niola eman esan.

Urte asko daramatzazu gure artean, ezta?

Bai 1963ko maiatzaren 10ean etorri nintzen Oriola Monterrubio de la Serenatik –Badajoz–. Pintaketa lanak egin nituen Duranekin, besterik ezean, 17 urte neuzkan eta.

Bakarrik etorri nintzen, familia han utzita. Baina andrea hemen ezagutu nuen, Zumaian hain zuzen ere, nahiz eta herri berean jaioak garen.

Hemen geratuko naiz hil arte, ez nau inork mugituko. Dena den, tarteka hara joango naiz, familia bisitatzerako.

TREN ORDUTEGIAK														
DONOSTIA - ZARAUTZ														
Donostia	05:47	06:17	06:47	07:17	07:47	08:17	08:47	09:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47
Aia-Orio	06:11	06:41	07:11	07:41	08:11	08:41	09:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11
Zarautz	06:19	06:50	07:20	07:50	08:20	08:50	09:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20
Donostia	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20
ZARAUTZ - DONOSTIA														
Zarautz	06:08	06:38	07:08	07:38	08:08	08:38	09:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08
Aia-Orio	06:15	06:45	07:15	07:45	08:15	08:45	09:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15
Donostia	06:39	07:09	07:39	08:09	08:39	09:09	09:39	10:39	11:39	12:39	13:09	13:39	14:09	14:39
Zarautz	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:09	19:38	20:09	21:09	22:38
Aia-Orio	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:45
Donostia	15:09	15:39	16:09	16:39	17:09	17:39	18:09	18:39	19:09	19:39	20:09	20:39	21:39	23:09

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com

AUTOBUS ORDUTEGIAK											
LANEGUNETAN						ASTEBURUETAN					
Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia	Donostia	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Donostia
06:55	07:25	07:35	06:45	06:55	07:30	08:00	08:35	08:45	06:45	06:55	07:30
07:40	08:15	08:25	07:15	07:25	08:00	09:00	09:35	09:45	07:45	07:55	08:40
08:10	08:45	08:55	07:45	07:55	08:30	10:00	10:35	10:45	08:45	08:55	09:40
08:40	09:15	09:25	08:15	08:25	09:00	11:00	11:35	11:45	09:45	09:55	10:40
09:10	09:45		08:45	08:55	09:30	12:00	12:35	12:45	10:45	10:55	11:40
09:40	10:15	10:25	09:20	09:30	10:10	13:00	13:35	13:45	11:45	11:55	12:40
10:40	11:15	11:25	09:45	09:55	10:30	14:00	14:35	14:45	12:45	12:55	13:40
11:40	12:15	12:25		10:30	11:10	15:00	15:35	15:45	13:45	13:55	14:40
12:10	12:45	12:55	10:45	10:55	11:30	16:00	16:35	16:45	14:45	14:55	15:40
12:40	13:15	13:25	11:45	11:55	12:30	17:00	17:35	17:45	15:45	15:55	16:40
13:10	13:45	13:55	12:45	12:55	13:30	18:00	18:35	18:45	16:45	16:55	17:40
13:40	14:15	14:25	13:20	13:30	14:10	19:00	19:35	19:45	17:45	17:55	18:40
14:10	14:45	14:55	13:45	13:55	14:30	20:00	20:35	20:45	18:45	18:55	19:40
14:40	15:15	15:25	14:20	14:30	15:10	21:00	21:35	21:45	19:45	19:55	20:40
15:10	15:45		14:45	14:55	15:30	22:00	22:35	22:45	20:45	20:55	21:40
15:40	16:15	16:25	15:20	15:30	16:10	22:30	23:05	23:15	21:45	21:55	22:40
16:40	17:15	17:25	15:45	15:55	16:30	OHARRA: lanegunetan koa dro arpidun ordutako autobusak Urbiñeik pasatzen dira. Asteburuetan, berriz, guztiak pasatzen dira. Koadro honetako ordutak lanruntetako (laneguna) zerbitzuak bakarrik dagozkie.					
17:40	18:15	18:25		16:30	17:10						
18:10	18:45		16:45	16:55	17:30						
18:40	19:15	19:25	17:45	17:55	18:30	Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek dararna. Zerbitzuari buruzko informazioa lortzeko zentrit bide daude:					
19:10	19:45	19:55	18:45	18:55	19:30						
19:40	20:15	20:25		19:30	20:10						
20:15	20:50	21:00	19:45	19:55	20:30	www.landabus.com Tf. 943 24 01 14 sms-a 5260 zerbakia					
21:00	21:35	21:45	20:45	20:55	21:30						
22:15	22:50	23:05	21:15	21:25	22:00						

ITSASOA			
URRIA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
16	03:40 eta 15:59	09:36 eta 22:06	
17	04:21 eta 16:40	10:18 eta 22:46	
18	04:59 eta 17:20	10:59 eta 23:24	☀
19	05:36 eta 17:57	11:38 eta _____	
20	06:11 eta 18:34	00:00 eta 12:18	
21	06:47 eta 19:10	00:36 eta 12:57	
22	07:23 eta 19:47	01:13 eta 13:37	
23	08:49 eta 21:18	01:51 eta 14:20	
24	08:49 eta 21:18	02:34 eta 15:09	
25	08:47 eta 21:27	02:27 eta 15:10	
26	10:03 eta 22:59	03:38 eta 16:28	☾
27	11:23 eta _____	05:04 eta 17:48	
28	00:18 eta 12:31	06:19 eta 18:51	
29	01:12 eta 13:24	07:14 eta 19:38	
30	01:54 eta 14:06	07:56 eta 20:17	

ZAINTZAKO BOTIKAK	
URRIA	Azaldegi: Urdaneta kalea, 8 943 13 31 83 Zarautz
■ 16an, Mutiozabal.	Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17 943 83 23 98 Zarautz
■ 17an eta 18an, Etxeberria.	Mutiozabal: Kale Nagusia, 12 943 83 29 70 Zarautz
■ 19an, Zulaika.	Larrañaga: S. Frantzisko, 16 943 13 38 14 Zarautz
■ 20an, Iriarte.	Lasa: Herriko plaza 943 83 09 36 Orio
■ 21ean, Larrañaga.	G. Artiñano: Zigordia kalea, 17 943 13 40 19 Zarautz
■ 22an, Mutiozabal.	Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz
■ 23an, Etxeberria.	Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz
■ 24an eta 25ean, G. Artiñano.	
■ 26an, Azaldegi.	
■ 27an, Larrañaga.	
■ 28an, Mutiozabal.	
■ 29an, Etxeberria.	
■ 30ean, G. Artiñano.	
■ 31n, Azaldegi.	
■ 1ean, Azaldegi.	

BINGOA

■ Orion, urriaren 20an eta 28an, Zaharran Babes Lekuak antolatutako bingoa. 16:30etik 18:30era, kultur etxean.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, urriaren 28an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira zabor lekuetan.

IRTEERA

■ Urriaren 21ean, Aia-Leintz-Gatzaga-Oñati-Aia egun pasa Aiako jubilatuentzat. Irteera, 08:30ean.

■ Urriaren 18an, Etxarriko Nafarroa Oinezarako autobusa, Ikastolak antolatuta. 09:00etan autobus geltokitik.

ERAKUSKETA

■ Urriaren 19tik azaroaren 1a arte, Aiako 4. argazki lehiaketako irudien erakusketa kultu etxean. Astelehen eta asterte arratsaldeetan eta larunbatetan itxita. Gainontzean, kultur etxeko ordutegia.

HITZALDIA

■ Orion, urriaren 20an, *Bakardadeari aurre egiteko alternatibak: animaliak, ikasle gazteak, elkar hartu hitzaldi* elebiduna.

**Babes Lekuko bidaiak**

Guztira 55 lagun joan ziren Kataluinara, irailaren 21etik 28ra, Orioko Zaharren Babes Lekuak antolatutako bidaietan. Oso ondo ibili ziren, primerako eguraldiarekin, eta Kataluniako txoko polit ugari ikusi zituzten zortzi egunetan. Hotela Lloret de Mar herrian izan zuten; baina egunero abiatu dira handik, bisitaren bat edo beste egitera.

Argazkian talde osoa ageri da, Gironako Santa Maria katedralaren aurrean.

Urriaren 26an, Gernikako azokara eskurtsioa egingo dute. Mundakako *Casinon* bazkalduko dute eta Bermeora eta Lekeitiora joango dira gero.

18:30ean, kultur etxean.
Hizlaria: Nagore Vazquez.

AFARIA

■ Orion, urriaren 31n, 73koen afaria Gure Etxea alkartetxean. Izen-emateko, Kalakari tabernan. Epea urriaren 26a.

ESKU PILOTA

■ Orion, urriaren 20tik aurrera, astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara, esku pilota entrenamenduak frontoian. Irakasleak: Eneko Galarraga eta Aritz Lertxundi. 10 euro hilero.

IKASTOLA BERRIAREN INAUGURAZIOA

■ Orion, urriaren 24an, *Orioko Herri Ikastola banderaren estropada*. Arratsaldean, erriogan.
■ Orion, urriaren 25ean, Orioko Herri Ikastolaren eraikin berriaren inaugurazioa. Trikitilariak, ttuntturroak eta bazkaria. Txartelak Ikastolako idazkaritzan salgai. Helduak 14 euro eta umeek 8,5.

GAZTE ASANBLADA

■ Orion, asteazkeneko OKK-k antolatutako gazte asanblada. 18:30ean, Errikotxiaren eta Herrioren lokal berean, frontoiko aldan.

ELKARRETARATZEA

■ Orion, urriaren 30ean, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan, Herriko Plazan.

ORDU ALDAKETA

■ Urriaren 25ean, larunbatetik iganderako gauean, neguko ordutegira aldaketa. 03:00etan 02:00ak izango dira.

BIDEO EMANALDIA

■ Urriaren 23an, Oteizari iaz eginiko omenaldiaren bideo proiektzioa. 19:00etan kultur etxean.

AZOKA**Iragarkietarako txokoa**

Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu:
karkara@karkara.com.
Merke asko, doako zerbitzua da-eta gurea.

GALDUTAKOAK

■ Emakumezkoen txaketa bat aurkitu dut Arrantzale kalean. Norbaitena bada Ixarranekoengana jo.
■ Hannah Montana txandalaren txaketa

(umeena) galdu dut Eusko Gudari kalea eta musika eskola tartean. 650 65 16 13
■ Kate bat aurkitu dut Sarasua atzeko zaborrontzian. E-L. 25-9-92. Kristo bat du, eskapularioa. 650 65 16 13.

ALOKAIRUA

■ Pisu estreinatu gabea dut alokatzeko Armendigainen, Aian. 3 logela, bi bainu gela, garajea... 629 68 04 10

LAN BILA

■ Ekitaldietako estruktura jartzen eta auto pilotuetako gidaritzan esperientzia dut eta lan bila nabil. Berehala

hasteko. Tf: 634 872 383 (Alberto).

■ Familia edota edadetuak zainduko nituzke gau eta egun. Eskarmentua badut. Tf: 686 04 27 32.

■ Geriatrian titulatu naiz eta edadetuak, haurrak... zainduko nituzke.

Zainketan esperientzia dut eta badakit sukaldean ere. Tf: 639 40 94 21.

■ Edozein lan hartuko nuke: 639 40 94 21.

■ Etxeko lanak egiteko emakume eskarmentuduna. 637 90 56 95 (Celestine).

BANAKAKO ESKOLAK

■ Ingenieritza teknikoko

ikasketak eginak ditut eta banakako eskolak emango nituzke LH, DBH eta batxilergoko ikasleentzat. Deitu: 608 16 49 71.

SALGAI

■ Etxe berria salgai Goiko Kalean. Bi logela gehi bestea duplexean. Sukalde osatua, horma-barruko armairuak eta igogailua. 276.000 euro. 653 74 25 76 (Karmele).

**publizitatea kalean jartzen?
erotuta, ala?**

Karkara

**Orioko eta Aiako etxe guztietara
heltzen da.**

JARRI HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

**SANIKOLASETAN
ETA GABONETAN.
PUBLIZITATE
BEREZIA
KOLORETAN.
EGIN ZUREA!**

HARREMANETARAKO:

Orioko kultur etxea

943 83 15 27

695 78 07 20

karkara@karkara.com

www.karkara.com

KARKARA

